

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

273/2019 Foru Agindua, ekainaren 10ekoa. Haren bidez emakida administratiboa ematen da Itelazpi SA enpresaren alde, Santikurutze Kanpezu herriko "Cebollero" izeneko onura publikoko 235 zenbakiko mendian dagoen loar izeneko telekomunikazio zentroaren okupazioa erregularizatzeko, ez baitauka basoko jabari publikoa okupatzeko gaitzen duen titulurik

Aurrekariak

1. Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 55. artikulua-
ren arabera, eta, besteak beste, Arabako Foru Aldundian mendien arloan eskudun den sailak
ikertzeko eta administratzeko dauzkan ahalmenak erabiliz, prozedura hasteko erabakiaren aurre-
tik lehenagoko jarduketetarako aldi bat zabaldu da, kasu zehatzaren inguruabarrak ezagutzeko.
Hauexek dira:

2. 2012ko urriaren 5ean, Santikurutze Kanpezuko administrazio batzordeak, "Cebollero"
onura publikoko 235 zenbakiko mendiaren jabe izanik, hau eskatu zion Ingurumen eta Hirigintza
Sailari: ezar dadila mendia okupatzeko kanonaren eta erabilerak edo okupazioak mendiari
eragindako kalte-galeren ordainaren zenbatekoa. Zenbateko horiek Itelazpi SAK ordaindu be-
harko dizkio Santikurutze Kanpezuko administrazio batzordeari, okupazio horregatik. Hala-
ber, aurkeztutzat eman dadila administrazioaren ondare erantzukizunagatik erreklamazioa,
dagokion prozedura has dadila eta, legezko izapide egokien ondoren, kalte ordaina ordain
dakiola Santikurutze Kanpezuko administrazio batzordeari kanona eta dagokion kalteordaina
ez ezartzeak eragindako kalteagatik, adierazitako baldintzetan.

3. 2018ko urtarrilaren 10ean Santikurutze Kanpezuko administrazio batzordeak, "Cebollero"
onura publikoko 235 zenbakiko mendiaren jabe izanik, Nekazaritza Sailari eskatu zion Itelazpi
Sozietatearen telekomunikazio zentroa, mendi horretan dagoena, Mendien Foru Arauan xeda-
tutakoaren arabera erregularizatzeko.

4. 2018ko urtarrilaren 10ean, Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuak, Arabako Lurralde
Historikoko Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 24. eta 26. artikuluen
arabera esleituta dauzkan eskumenak erabiliz, eta, Santikurutze Kanpezuko administrazio
batzordeak eskatuta, Itelazpi SAK kudeatzen duen zentro igorlearen okupazioaren emakida ad-
ministratiboa onartzeko prozedura izapidetuz (loar deritza zentro hori eta Santikurutze Kanpezu
herriko "Cebollero" izeneko onura publikoko 235 zenbakiko mendian dago kokatuta, eta ez da
egiaztatu titulurik sozietate horrek mendi hori baldintza horietan okupatzea zilegi egiten duen
titulurik), informazioa eskatu zion Itelazpi SAK loar telekomunikazio estazioan instalatuta dau-
den instalazioen eta haien funtsezko elementuen zerrondari buruz, zentro horrek ematen dituen
ikusentzunezko igorpen eta frekuentzia guztien izenarekin.

5. 2018ko irailaren 12an Matxalen Lauzirika Jauregik, Itelazpi SAKo zuzendari nagusia iza-
nik, eskatutako informazioari erantzun zion, adieraziz foru aldundi honek argi zehaztu behar
duela Arabako Lurralde Historikoan zentro osoa ala haren zati bat sartuta dagoen; izan ere,
puntu horretan bat egiten du Nafarroako foru lurraldearekin. Halaber, 1987ko otsailaren 13an
mendiaren titular den Santikurutze Kanpezuko administrazio batzordeak erabaki zuen komu-
nikazio zentroa jartzeko behar ziren lurragi lagatzea (lehendik zegoena ordeztu zuen hark) eta
foru aldundiak baimena eman zuen zentroa eraikitzeko, 1987ko urriaren 16ko Foru Aginduaren
bidez. Horregatik, dioenez, ez da egokia erregularizazio espedientea zabaltzea, hura une hartan
indarrean zegoen lege esparruaren arabera egin baitzen bere garaian. Nolanahi ere, idazkiak

eskatutakoari erantzun dio, zentro horretan lotutako azpiegitura elektrikoei lotuta izandako jarduerari dagokionez.

6. 2018ko irailaren 5ean, Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua harremanetan jarri zen berriro ITELAZPI SArekin, dokumentazio eskaera zabaltzeko, onura publikoko mendiaren okupazio tituluar buruzko agiriak eta instalazio guztiek, hargune elektrikoak barne, okupatutako azaleraren mugaketa kartografikoa eskatuz.

7. 2018ko irailaren 21ean Matxalen Lauzirika Jauregik, Itelazpi Sako zuzendari nagusi izanik, eskatutako informazioari erantzun zion, adieraziz okupazio tituluar dagokionez irailaren 12ko idazkira bidaltzen duela eta informazio kartografikoari dagokionez eskatutakoaren plana erantsi zuen.

8. 2018ko azaroaren 6an, Gainsa SL enpresak, Mendi Zerbitzuak memoria tekniko ekonomikoa egiteko kontratatu zuenak, txosten tekniko ekonomikoa eman zuen: kanonaren kalkulua loar telekomunikazio zentroak onura publikoko 232 zenbakiko mendia okupatzeagatik. Merkaturako prezioak erkatzeko metodologian oinarrituta, txostenak urtean 15.990,27 euroko kanona kalkulatu zuen telekomunikazio zentroaren egungo kokapenerako; haietatik, 15.989,67 euro telekomunikazio zentroaren okupazioari dagozkio eta 0,6 euro hargune elektrikoaren okupazioari.

9. 2019ko otsailaren 19an, administrazio prozedura abiarazten duen Foru Agindua onartu zen, arautzeko Itelazpi SA sozietatearen kudeaketapeko loar telekomunikazio zentroak okupatutako baso jabari publikoa, zehazki, Santikurutze Kanpezuko herriaren onura publikoko Cebollero izeneko 235 mendian.

Egintza horiei ondoko oinarri juridikoak aplikatzen zaizkie:

Lehenengoa. Santikurutze Kanpezu herriko "Cebollero" onura publikoko 235 zenbakiko mendiaren okupazioari aplikatu beharreko araubide juridikoa.

loar komunikazio zentroa Santikurutze Kanpezu herriko "Cebollero" onura publikoko 235 zenbakiko mendiko lurretan dago eraikita. Mendi hori Arabako onura publikoko mendien katalogoan dago sartuta hura behin betiko onartu zenetik, Sustapen Ministerioaren 1909ko maiatzaren 5eko Errege Aginduaren bidez. Dauden datuen arabera, katalogo horretan sartu zenetik mendi horrek ez du izan katalogatutako mendia osatzen duten lur guztiak edo batzuk onura publikoko mendi izatea aldatzen duen desfektaziorik.

Lurralde historikoen (Arabak) eskumen eskusiboa dute mendien arloan, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 10.8 artikuluan ezarritako baldintzetan, Lurralde Historikoen 27/1983 Legearen 7.a.9 artikulua xedatzen duenez. Arabako Mendien 11/2007 Foru Araua (AMFA) AFAk esleituta duen eskumen eremuaren barruan onartu zen, beraz, eta 11.1 artikuluan xedatzen denez, AMFAren xedea Arabako Lurralde Historikoen mendiei eta haien erabilera eta aprobetxamendu guztiei xedeak eta araubide juridikoa ezartzea da.

Egun Araban dauden telekomunikazio zentroek okupatutako lurzoruetako asko onura publikoko mendien barruan daude. Azken horiei dagokienez, Mendien 43/2003 Legeak, 12.1.a) artikuluan, xedatzen du jabari publikoak direla, zerbitzu publikoagatik, onura publikoko mendien katalogoan sartutako mendiak. Onura publikoko mendien araubide juridikoa lege horren 14. artikuluan dago araututa, eta adierazten denez, mendi horiek besterenezinak, preskribaezinak eta enbargaezinak dira. 15. artikulua arautzen du emakida behar dutela baso jabari publikoaren erabilera pribatiboa dakarten jarduerak, eta, halaber, baimena, baldin autonomia erkidegoko araudiaren arabera hala behar badute.

Mendi katalogatuaren zati baten erabilera pribatiboa demanio baten okupazioa da eta hala martxoaren 26ko 11/2007 AMFAn xedatutakoa bete behar du. Arau horren 24. artikulua xedatzen duenez, mendi katalogatu bat okupatzeko foru aldundian mendien arloan eskudun den sailaren emakida administratiboa beharko da. Halaber, zehazten da emakida hori ez dela iraunkorra izango.

Bestalde, AMFAren 26. artikulua erabilera eta aprobetxamendu guztiei dagozkien xedapenak zehazten ditu, eta lehen partean xedatzen du foru aldundian mendien arloan eskudun den sailak ezarriko dituela baimen edo emakidaren betekizun edo baldintza lotesleak, erakunde titularrak ordaindu beharreko baimen tasa edo okupazio kanona barne eta, egokia balitz, erabilerak edo okupazioak mendiari eragingo dizkion kalte eta galeren ordaina.

Bigarrena. Itelazpi SAK ez dauka "Cebollero" onura publikoko 235 zenbakiko mendia okupatzeko gaitzen duen titulurik.

Joan den mendeko 70eko hamarkadan eta 80etako lehen erdian, sarea osatzen duen berrigorleak instalatzeko okupatu ziren lurzoruak (Arabako –Zaldiaran igorle nagusiari zein probintziarik banatutako bigarren mailako zentro berrigorleei erreferentzia eginez, zeinen artean baitzegoen loar), eta iristeko bideen erabilera lurzoruen jabe ziren administrazio batzordeek edo udalek eman zituzten, kasu honetan Santikurutze Kanpezuko administrazio batzordeak, Arabako Foru Aldundiak haien jabetza eskuratu gabe.

1985a amaitu baino lehen, 1985eko azaroaren 8an, azaroaren 5eko 336/1985 Dekretua, Arabako Lurralde Historikoarenak ziren komunikabide-alorreko zerbitzuak Autonomia Elkarte Osorako Erakundeei ematen dizkiena, argitaratu zen ALHAOn eta, esanenez, Arabako Lurralde Historikoan Arabako Foru Aldundiak 5 hil lehenago Eusko Jaurlaritzari emandako dokumentazioa hartu zen oinarri. Komunikazio zerbitzuak emateko dekretu horrek, 1. artikuluan EJ-AFA arteko transferentzien batzorde mistoaren erabakia onartu zuen. Haren bidez, EAE osorako erakundeen eskumenei komunikazioen arloan dagozkien zerbitzuak, ondasunak, eskubideak eta betebeharrak zehaztu ziren, eta 1985-09-16ko bileran onartu zuen batzorde horren osoko bilkurak.

Eranskinaren B puntuak lurralde historikoek EAE osoko erakundeei eskualdatutako zerbitzuak eta erakundeak definitzen ditu eta haien artean dago komunikazio sareen, instalazioen, hedagailuen eta gainerako zerbitzuen titulartasuna. C puntuak eskualdatutako ondasunak, eskubideak eta betebeharrak ezartzen ditu, telebista eta irrati seinaleen igorpen zentro batek eta berrigorpen zentroen talde batek osatuta (haien artean, loar estazioa), eta EAEko erakundeak subrogatzen dira AFA titular zen eskubide eta betebeharrak. Berariaz salbuesten da AFAn komunikazio sarearen ekipamendua, zeina transferentzien erabaki horretatik kanpo geratuko bailitzateke.

Sinatutako hitzarmenen arabera, hauek sartzen ziren loarren eskualdatutako instalazioan: metalezko itxitura bat, 5x4 metroko komunikazio eraikin bat, behe tentsioko linea bat, goi tentsioko linea bat, 44 metro garai den dorre bat eta sistema erradiatzaile bat, 100 wateko hiru UHF ekiporekin, 100 eta 500 watekin 2 ekipo berrigorlerekin, eta dena baterako bide batekin. Berariaz jasotzen zen "lurzoruen jabetza administrazio batzordearena".

Horrela, Arabako telebista eta irrati komunikazioko lehenengo hedagailu sarea eraikita, 1985ean Eusko Jaurlaritzaren mendeko bihurtu ziren azpiegitura horiek. Zerbitzuak, instalazioak, eskubideak eta betebeharrak administrazio autonomikoari eskualdatu zitzaizkion, baina ez lurzoruen titulartasuna, AFAk ezin baitzuen lurzoruaren jabetza eskualdatu berea ez bazuen.

Geroago, 1987ko otsailaren 13an, Eusko Jaurlaritzak lurzoru batzuen lagapena Santikurutze Kanpezuko administrazio batzordeari eskatu eta lortu zuen (ez da jaso haien mugaketa) irrati eta telebista ekipamendu berriak jartzeko, bideak aurkitutako baldintza berberetan uzteko baldintzapean.

1987ko urriaren 16ko Foru Aginduaren bidez, Arabako Foru Aldundiak zentro igorle berria Kanpezuko administrazio batzordeak lagatuko lurzoruaren eraikitzea baimendu zuen.

Eta Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 16ko 488/1996 Erabakiaren bidez, baimena eman zitzaion Eusko Jaurlaritzako Barne Saileko Komunikazio Zuzendaritzari komunikazio zentrorako lurpeko hargune elektriko bat jartzeko.

AFaren informazio eskaerari erantzuteko bere idazkietan, mendi katalogatua okupatzeagatiko emakida administratiborako prozedura hasi aurreko jardueri buruzkoetan, Itelazpi SAK uste du ez dela egokia erregularizazio prozedura hastea, hura bere garaian egin zelako, orduan indarrean zegoen lege esparruaren arabera.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da zentro igorle berria baimendu zuen 1987ko urriaren 16ko Foru Aginduan, kontuan hartuzko batean gogoratzen duela nahi zen instalazioa onura publikoko mendi batean kokatzen zela eta horrek mendien arloko baimena izapidetzea eskatzen zuela.

Baimen hori Arabako Lurralde Historikoko Mendiak arautzen dituen uztailaren 4ko 13/1986 Foru Arauan zegoen araututa, zehazki III. ataleko (Okupazioak eta lurzorua) 36. eta 37. artikuluetan:

36. artikulua

1. Katalogatutako mendietan, salbuespenez, Foru Aldundiak okupazioak edo erabilerak baimendu ahalko ditu, hala nola instalazio elektrikoak edo komunikaziokoak, fluidoan hodiak zein onura publiko eta sozialeko beste erabilera batzuk, baita obra edo zerbitzu publikoengatik zein uren, meategien eta bestelako enmakida administratiboen ondorioz ere.

2. Baimena okupazioa edo erabilera mendia kalifikatzen duen onura publikoaren xedearekin bateragarri dela ziurtatzen duen espedientearen ondoren emango da, eta ondoz ondoko 15 egunez, entzunaldia emango zaie eskatzaileei eta erakunde titularrari, eta haren onarpena beharko da derrigorrez baimena emateko.

37. artikulua

1. Okupazioa edo erabilera baimentzeko ebazpenak haren epea eta ezaugarriak finkatuko ditu, eta onuradunak jabeari ordainduko dion urteko kanona, urtero kontsumorako prezioen indizearen ehuneko berean eguneratuko dena, baita emandako baimenaren mugak gainditu edo urratuz gero izango dituen erantzukizunak ere.

Itelazpi SAK emandako dokumentazioan mendien arloko baimen hori ageri ez denez, gure ustez enpresa horrek ez dauka titulurik "Cebollero" onura publikoko 235 zenbakiko mendia okupatzeko, okupatzen ari den baldintzetan.

Hirugarrena. loar izeneko komunikazio zentroak izandako funtsezko aldaketa.

Datu ekonomikoak aztertuta, zerbitzua ematen zaien eta horregatik kopuru ekonomiko bat ordaintzen duten operadore pribatuak bakarrik kontuan hartuz, esan daiteke kontraprestazio ekonomikorik onartu eta 1985ean transferitutako jatorrizko instalazioari dagokionez (funtsean telebista eta irrati publikoen estatu eta autonomiako kanalak emititzeko balio zuten instalazioan eskualdatu ziren funtsean), loar estazioan, operadore pribatuengatik bakarrik, urteko sarre-
rak nabarmen handitu dira hamarkada hauetan, 2016an 61.633,8 eurora iritsita (iturria: Eusko Jaurilaritza. Erantzuna Euskadiko talde popularrak Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari idatziz egindako galderari, Itelazpi SAK EAEn kudeatzen dituen telekomunikazio zentroetan operadore pribatuak hartzeagatik lortzen dituen urteko sarrerei buruzkoari).

Beraz, telekomunikazio zentro berriarekin handitu egin da okupatutako azalera eta, gainera, funtsezko aldaketak egon dira okupazioan, zeina kontraprestazio ekonomikorik gabe onartu baitzen bere garaian, bere barruan bildutako instalazioak gehitu baitira, hirugarrenei zerbitzu berriak hartu edo emateko, besteak beste telefonia mugikorreko operadoreei emandakoak.

Laugarrena. Bateragarritasuna onura publikoarekin.

Mendien Foru Arauaren 24.1 artikuluan xedatutakoan oinarrituta eta kontuan hartuz onura publikoko mendiko basoko ingurune fisikoko okupazioa, azaleraren hedaduraren ikuspuntutik

(Arabako onura publikoko mendien katalogoko 235 zenbakiko mendiaren azalera osoaren ehuneko 0,015 da, 491,3 hektarea, AFaren kartografiatik ateratako datuen arabera), eragin kualitatiboki txikia eta kuantitatiboki oso urria dela, eta mendiko auzoko aprobetxamenduetan eragina sumaezina denez, Cebollero mendiaren onura publikoa bateragarria da erregularizazio espediente honen xede den instalazioak lurzoru horietako batzuk okupatzearekin.

Ondorioz, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege Araubideari buruzkoak, 40. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik eta dagozkidan ahalmenez baliatuz,

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT

Lehenengoa. Emakida administratiboa ematea 747,34 metro koadroko okupazio pribatiborako (Santikurutze Kanpezu udalerriko 1 poligonoko 2847 D, E, F eta 3685 zenbakiko katastro lurzattia, Santikurutze Kanpezu herriko "Cebollero" deritzon 235 zenbakiko OPMren barruan), instalazio hauekin: 63 metro garai den komunikazio dorrea, oin planoko 282 metro koadroko etxola, oin planoko 13 metro koadroko etxola, perimetroko itxitura eta lurpeko hargune elektrikoko 12 metro koadro.

Bigarrena. Okupazioaren ezaugarriak aztertuta, hauek dira basoko jabari publikoaren erabilerara pribatiboko emakidarako proposatutako baldintzak:

- Enpresa emakidadunak instalazioak zaindu eta mantentzeko gastu guztiak hartuko ditu bere gain, baita zergak, tasak eta gainerako tributuak.

- Erantzukizun zibila: enpresa emakidadunaren kargura izango da erantzukizun zibila instalazioak hirugarrenei eragin liezazkiekeen kalteengatik.

- Okupazio epea: hasiera batean 30 urtekoa da, eta gehienez ere 75 urte arte berrizta daiteke, horixe baita toki araubidearen legediak finkatzen duen epea, betiere ematen zaion erabilerak bere hartan jarraitzen badu.

- Zentrora iristeko azpiegitura: bideak jasaten dituen erabilerak direla eta, Itelazpi SAREN ekarpena, zentrora iristeko bide hori mantentzeko gastuetan, hari ematen dion erabileraren proportziokoa izango da. Proportzionaltasun hori mendiaren titular den erakundearekin adostu eta Mendi Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio 2019an.

- Jabari publikoaren emakidak dirauen epe osoan emakidadunak instalazioetara sartzen utziko die Arabako Foru Aldundiko langileei eta teknikari laguntzaileei.

- Itelazpi SAK ordaindu beharreko kanona eta haren berrikuspena: Gainsa SL enpresak egindako Kanonaren kalkulua loar telekomunikazio zentroak onura publikoko 232 zenbakiko mendia okupatzeagatik txosten tekniko ekonomikoaren arabera:

Santikurutze Kanpezuko administrazio batzordearen alde: 15.990,27 euro urtean; haietatik:

- Telekomunikazio zentroaren erabilerara pribatiboagatik: 15.989,67 euro urtean.

- Linea elektrikoak dakarren basoko demanioaren okupazioagatik: 0,60 euro urtean.

Kanona urtero berrikusiko da, unitateko prezioak, aurreko hamabi hiletako KPIaren arabera eguneratuta, eguneraketaren unean dauden azalera baldintzetara, dorrearen garaierara eta instalatutako elementuetara egokituta aplikatuz, 1 zenbakiko dokumentuan (txosten tekniko ekonomikoa: kanonaren kalkulua loar telekomunikazio zentroak onura publikoko 232 zenbakiko mendia okupatzeagatik) adierazitako irizpideen arabera, okupazioa erregularizatzen duen foru agindua aldatuz.

- Urteko txostena. Okupazioaren kontzesioaren datatik urtealdia bete aurreko 15 egunetan, enpresa emakidadunak txosten bat bidali beharko du elementu instalatuen datuak eguneratuko dituen. Kanonaren urteko berrikuspena egiteko balioko du.

Dorrearen altueraren eta okupazioaren azaleraren aldaketatik eratorritako eguneraketak haiexek baimentzen diren unetik aurrera egiten dira.

- Azkentzeko kausak: enpresak urteko txostena bidaltzeari zein kanona ordaintzeari dagozkien baldintzak betetzen ez baditu, emakida azkenduko da, errekerimendua egin ondoren.

- Okupazio epea beteta, edo baimena ematearen helburu den erabilera lehenago bukatuta, titular emakidadunak, urtebeteko epearen barruan, instalazioak guztiz kendu eta eragindako lurak leheneratu beharko ditu.

Mendi Zerbitzuak proposatutako okupazio emakidak, mendi publiko katalogatua okupatzeko izapideari dagokionak, ez du emakidaduna salbuesten indarreko araudiak eskatzen dituen beste baimen eta lizentzia guztiak izapidetu beharretik.

Hirugarrena. Foru Agindu hau jakinaraztea Santikurutze Kanpezuko administrazio batzordeari, Itelazpi SA sozietateari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorriari, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Laugarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 10a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE